

# Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko otsailaren 27tik martxoaren 3ra.

---

## **INGURU MAKROA:**

- ASTEKO DATUEN PODIUMA
- KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

## **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROPA: KPI EUROGUNEA



### Datuaren analisia

Otsaileko euroguneko atariko KPIak urte arteko % 2ko igoera utzi digu, espero zen moduan, aurreko % 1,8tik igota. Inflazioa, hortaz, azken lau urteotako mailarik altuenera iritsi da. Energiaren prezioen gorakada handia nabarmendu behar da, eta haren atzetik dauden elikagaien, edarien eta tabakoaren prezioena. Azpikoa % 0,9an geratu da, aurreko hileko eta aurreikusitako datuen pare. Herrialdeei begiratuta, Alemanian, adierazlearen urteko tasa 2011tik ikusi gabeko mailetara iritsi da. Urtarrilarekin alderatuta, Alemaniak +% 0,6 egin du gora, aurreko hilean % 0,6 behera egin ondoren; Frantziak % 0,1 besterik ez du egin aurrera; Italiak % 0,3ko igoera izan du; eta Espainiak % 0,3 egin du atzera, argiaren erruz.

### Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Eurostat/Europako Banku Zentralak. Europako etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: MANUFAKTUREN ETA ZERBITZUEN ISM



#### Datuaren analisia

Estatu Batuetako manufakturen ISMa 57,7 puntuetaraino iritsi da otsailean, aurreko eta aurreikusitako 56 puntuaren aldean. Sei hiletako hobekuntza etengabeen ondoren, adierazleak bere emaitzarik onena lortu zuen 2014ko azarotik. Era berean, manufakturena ez den ISMa aurreko 56,5 puntuetatik 57,6 puntuetara iritsi zen otsailean, hau da, aurreikusitako 56,5a baino hobea. Osaerari begiratuta, negozio-jardueraren aurrerapena nabarmendu behar da, 60,3tik 63,6ra igo baitzen. Eskari berriek eta enpleguak ere gora egin zuten, eta, aldiz, alde negatiboan, ordaindutako prezioen beherakada eta inbentarioen datuaren hazkundera nabarmendu behar dira.

#### Adierazlearen azalpena

ISM zerbitzuen/manufaktura-indizeak konpainia amerikar nagusietako erosketen arduradunei hileroko egiten zaien inkesta bat du oinarri. Bertan, manufaktura-sektorearen egoeren inguruan galdetzen zaie. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### JAPONIA: MANUFAKTUREN ETA ZERBITZUEN PMI



#### Datuaren analisia

Japonian, manufaktura sektoreko PMIaren datua 53,3koa izan zen otsailean. Urteko bigarren hilean, Japoniako manufaktura jardueraren erritmoa azken hiru urteotako handiena izan zen. Horrekin batera, zerbitzu PMIa argitaratu zen, pixka bat behera egin zuena (51,9tik 51,3ra). Sektore honen hazkunde erritmoa txikiagoa izan zen otsailean, baina enpleguen sorreraren intentsitatea ia azken lau urtetako handiena izan zen. Composite adierazlea, aldiz, egonkor mantendu zen aurreko datuarekin alderatuta (52,3tik 52,2ra pasatu zen).


#### Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hileroko erostetako profesionalen eta enpresetako exekutiboekin manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuaren sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### TXINA: MANUFAKTUREN ETA ZERBITZUEN PMI



#### Datuaren analisia

Manufakturen PMIa 51,6 puntuetara iritsi zen, urtarrilean baino hiru hamarren gehiago, eta bigarren erregistrarik altuena lortu zuen ia bost urtetan, azaroko 51,7 puntuen ondoren. Zerbitzuen indizeak, bestalde, lau hamarren egin zuen atzera, urtarrileko 54,6tik otsaileko 54,2ra, baina oraindik sektorearen hazkundera sendoa dela erakusten du. Bestalde, ekoizpenaren Caixin PMIa ere 51tik 51,7ra igo zen. Zerbitzuen Caixin PMIak, ordea, okerrera egin zuen aurreko hilarekin alderatuta (53,1etik 52,6ra), eta azken lau hiletako minimoetara iritsi zen. Bi Caixin adierazleak gobernuaren helburuekin bat datoz.

#### Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hilero erosketen profesionali eta enpresetako exekutiboek manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

# INGURU MAKROA

## KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus
03/06	Alemania	Markit PMI Alemaniako xehekako merkataritza	--
03/06	Eurogunea	Markit Eurogunea xehekako merkataritza PMI	--
03/06	Frantzia	Markit PMI Frantziako xehekako merkataritza	--
03/06	Eurogunea	Sentix inbertsiogilearen konfiantza	--
03/06	Estatu Batuak	Fabrika-eskariak	% 1.0
03/06	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	--
03/07	Eurogunea	Urte arteko BPGd SA	--
03/07	Estatu Batuak	Balantza komertziala	-\$45.8b
03/08	Japonia	Hiruhileko BPGd SA	--
03/08	Alemania	Urte arteko WDA industria-ekoizpena	--
03/08	Frantzia	Balantza komertziala	--
03/08	Espainia	Urte arteko SA industria-ekoizpena	--
03/08	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
03/08	Estatu Batuak	ADP Enplegu aldaketa	180k
03/08	Estatu Batuak	Lan-kostu bateratuak	% 1.5
03/08	Estatu Batuak	MoM handizkako inbentarioak	--
03/08	Txina	Urte arteko inportazioak	--
03/08	Txina	Urte arteko esportazioak	--
03/08	Txina	Balantza komertziala	--
03/09	Txina	Urte arteko KPIa	--
03/09	Txina	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	--
03/09	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
03/10	Japonia	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	--
03/10	Alemania	Balantza komertziala	--
03/10	Frantzia	Urte arteko industria-ekoizpena	--
03/10	Frantzia	Urte arteko manufaktura-ekoizpena	--
03/10	Espainia	Urte arteko xehekako salmentak	--
03/10	Erresuma Batua	Urte arteko industria-ekoizpena	--
03/10	Erresuma Batua	Urte arteko manufaktura-ekoizpena	--
03/10	Erresuma Batua	Balantza komertziala	--
03/10	Estatu Batuak	Langabezia tasa	% 4.7



# ASTE HONETAN MERKATUETAN

## BURTSAK:

Indizeek portaera positiboa izan dute Atlantikoaren bi aldeetan. Enpresen emaitzak pixkanaka argitaratzen joan diren honetan, datu makroekonomikoek bereganatu zuten arreta guztia. Europan, sentimenduaren eta jarduera ekonomikoaren adierazleak hobetu ziren. Bestalde, otsaileko atariko KPIa % 2koa izan zen, eta azpikoa egonkor mantendu zen % 0,9an. AEBek ere datu makro sendoak eskaini zituzten. Agenda politikoari dagokionez, inbertsiogileek alerta-maila jaitsi zuten. Horretarako lagungarri izan zen lehenengo inkestaren datuen argitalpena, Frantziako hauteskundearen lehenengo itzulian Macron zentristak Marine Le Penen aurretik irabaziko duela esaten duena. Aipatu behar da Tumpek Iparramerikako kongresuan egin zuen agerraldian ez zela nobedaderik egon eta tonua ez zela horren oldarkorra izan. Horrekin guztiarekin, Europako burtsek igoera garrantzitsuekin itxi zuten astea; Ftse 100 britainiarra maximo historikoetara heldu zen, bere dibisaren ahuldadean oinarrituta. AEBetan, aurrerapenak pixka bat apalagoak izan ziren; hala ere, Dow Jonesak berriro maximoetara iritsi zen. Balantze mistoa Asian, eta negatiboa gorakorrentzat.

INDICES	PRECIO	%Variación Semanal	% Var 2016
MSCI WORLD (Local)	1.438,19	0,89	5,27
IBEX 35	9.798,50	3,65	4,77
DJ EURO STOXX 50	3.403,39	3,01	3,43
DJ STOXX 50	3.118,91	1,46	3,53
FTSE	7.374,26	1,80	3,24
S&P 500	2.383,12	0,67	6,44
Dow Jones	21.005,71	0,88	6,29
NASDAQ	5.870,76	0,44	9,06
NIKKEI 225	19.468,17	0,96	1,86
MSCI EMERGENTES (Lo)	50.824,53	-0,65	5,61
MEXBOL	47.414,57	0,78	3,88
BOVESPA	66.785,53	0,19	10,89
SHANGHAI	3.369,93	-1,08	3,70
Rusia Rts Moscú	1.109,28	-1,84	-3,82

## ERRENTA FINKOA:

Tasen gorakada Europako eta Iparramerikako "core" herrialdeetan. Europan, arriskuarekiko ezinikusi txikiagoak, tentsio politikoen lasaitzea eta datu makroen tonu onari esker, zor alemanari eskatutako errentagarritasuna igo egin zen eta herrialde periferikoena jaitsi. Horren ondorioz, arrisku-primak jaitsi egin ziren. Espainian, 132 op-ra jaitsi zen eta Frantzian hileko minimoetara. AEBetan, % 96ra igo da Erreserba Federalak martxoan tasak igotzeko probabilitatea, bere kideetako batzuek azken egunetan egindako adierazpenen laguntzarekin. Horrek ondorioak izan zituen zor amerikarraren salmentan. Kredituaren portaera ona izan zen.

Tipos Gobiernos	Nivel	Variación Semanal	Var 2016
ALEMANIA 2 AÑOS	-0,80	0,15	-0,03
ESPAÑA 2 AÑOS	-0,19	-0,09	0,09
EURO 2 AÑOS	1,31	0,16	0,12
ALEMANIA 10 AÑOS	0,36	0,17	0,15
ESPAÑA 10 AÑOS	1,88	-0,02	0,29
EURO 10 AÑOS	2,48	0,17	0,03
ALEMANIA 30 AÑOS	1,15	0,21	0,21
ESPAÑA 30 AÑOS	2,90	-0,02	0,29
EURO 30 AÑOS	3,07	0,12	0,01
<b>Spread de crédito (pb)</b>			
LIBRO DE BIL. 12/21	69,40	-5,35	-2,64
LIBRO DE BIL. NOVEN 12/21	274,17	-21,37	-14,53

## DIBISAK/LEHENGAIK:

Eruoak balioa irabazi zuen yenaren eta liberaren aurrean. Lehengaietan, petrolioaren prezioa % 0,97 jaitsi zen, AEBetan inbentarioen datuak espero baino altuagoak izan ondoren. Errusian, otsaileko ekoizpenaren maila urtarrilekoaren parekoa izan zen, eta bere murrizketa-konpromisoen % 33 besterik ez zuen bete. Urreak -% 1,80 galdu zuen.

Divisas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2016
Dolar / Euro	1,06	-0,07	0,14
Yen / Euro	120,87	1,93	-1,76
Libra / Euro	0,86	1,63	0,84

Materia Primas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2016
Petrolio (Brent)	55,00	-0,97	-0,74
Oro	1.234,55	-1,80	7,14





Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.